

# ANAITASUNA

305. zenb.

1975.eko urriaren 31koa


Pelota, 4 - 1.º - Apart. 495  
Tel. 423 74 49 - Bilbao-5

## 1965

## 1975

**Euskal Liburu-  
eta Diskuen Azoka**

**Feria del Libro  
y del Disco**



**euskal liburu eta  
diskuen azoka**

1-2 AZAROA 1975 · DURANGO · GEREDIAGA · TARREN EKINTZA

# DURANGO

# AZOKAK HAMAR URTE

# ALFABETA- TZEN



1

Kaixo, ikaskide!

Hemen duzu ALFABETATZEN lehen liburua. Lehen maila hontan, eguneroko gai arruntak erabiliz, euskaraz irakurtzen eta idazten irakatsi nahi dugu.

Berton aurki ditzakezu: euskalkien arazoa, euskara teknikoaren erabilketa, eguneroko gorabeheren euskaldunketa, eta abar.

Arrasateko Teknik Ikastegiari esker egindako liburua hau euskuratu nahi baduzu, eska ezazu helbide hontara:

Editorial Cinsa — «Alfabetatzen» — Pelota, 4-1.º — Bilbao-5.

# ANAITASUNA

BIZKAIA

## HAMABOSTEROKOA

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai

Urteko abonamendua:

Bertorako	300	pezeta
Latin Amerikarako	320	"
Europa eta Ipar Amerikarako	450	"

Ale bakoitza: 15 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º Bilbao-5.  
Posta kaxa 495. Tel. 237449.


INPRIMATZAILEA:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35 - Bilbao-10  
D. L.: BI. 1753-67.

## GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda  
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

# ELAISALAI YURRE

DANTZATOKI 60XOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA LUR** RESTAURANTA



## MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Ixas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO-9

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko xartela eta bidal helbide hontara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5.

Izen-deiturak .....

Bizilekua .....

Herria .....

Probintzia ..... Tel .....

# METODOLOGIAZKO IKASTAROA SANTUTXUN

Santutxu Bilboko huzotegi bat da. Bilboko ekialdean\* dago. Donostiatik Bilbora bide zaharretik gatzela, berori da lehen aurkitzen dugun huzotegia. Orain, autopista berriarekin, urruntxoago geratzen da. Baina Begoñarantz doazenek, bertara heldu orduko, etxebloke izugarriak ikusiko dituzte, ezkerretara begiraturik. Horixe duzue Santutxu.

Hainbat mila pertsona bizi da bertan. Bilbo barruko herri haundi bat dela esan genezake. Lehen, landa, soro eta ortuz beterik zegoen huzotegi hau. Orain, etxez mukuraturik\* dago. Lehengo eremu\* berdeez, oroitmena geratzen da soilik.

## Santutxu eta euskara

Huzotegi hontako bizilagunak leku askotatik etorriak dira. Euskaldunen kopurua\* handi samarra da. Kontutan hartu behar de gainera, oraintsu arte Santutxu inguruko baserritarrak euskaraz mintzatzen zirela. Ez da harrizkoa, beraz, huzotegi hontan bi ikastola egotea, bertako euskaldunek eraikiak, bakoitza seihun bat hurrekin. Bi ikastola, «Karmelo» eta «Begoñazpi» izenekoak. Ikastolen aipatze honekin, huzotegi hontan euskara indar hartzen ari dela adierazi nahi dut.

Batetik, haurrak ari dira euskara ikasten. Eta bestetik, haurren gurasoek ere ikasten dute, eta huzotegiko gazteek ere bai. Hauek batez ere. Santutxun aspalditik hasi ziren euskara irakasteko ikastaldiak antolatzen. Eta berorietatik, hainbat pertsona —zahar eta gazte— atera da euskaldundurik.

## Irakasleak eta metodologia

Denok dakigunez, ikasleek irakasleen premia haundia dute Euskal Herri osoan. Irakasleek, ordea, irakasle on izateko, ongi jantziak izan behar dute euskararen irakaskuntzan. Eta hortarako eskola berezirik ez dagoenez gero, Santutxuko irakasleek metodologiari buruzko ikastaro bat antolatu dute.

Urtiko lehen aste bietan eta modu esperimentalez egin dute. Eta, hurrengorako, hobetzeko asmoa duten arren, nahiko pozik geratu dira.

Ikastaroan, metodoen gorabeherak aztertu dira. Halaber,\* triketak,\* elkar hizketak, diktatuak eta abar prestatzeko eta gidatzeko bideak. Teoriarekin batera, ikastaldi praktikoko llibur\* batzu\* ere eman dira. Metodoen aldetiko gorabeherak aztertzeko, «Euskalduntzen» liburua hartu da, eta beronen hiru mailak aztertu dira goitik behera.

Ikastaroa modu esperimentalez egin dela esan dugu, eta horrela izan da. Baina, esperimentua bukatu ondoren, berriro ere esperimentu hori errepikatzeko\* asmoa eta gogoia sortu da. Eta ez Santutxun soilik; Euskal Herri osoan barrena ere bai.

Euskal Herrian zehar, ba daude sakabanaturik hainbat eta hainbat euskal irakasle. Hauetariko gehienak autodidaktak izan dira, euskararen irakaskuntzari dagokion arloan behintzat. Bestalde, euskal irakasleek gero eta hobeto prestaturik egon behar dute, euskal kulturak aurrerantz egin ahal dezan. Horregatik, euskararen irakaskuntzari buruzko ikastaroak egitea, guztiz interesgarri litzateke. Bide hontatik, toki klabe batzu askatzen (Bilbo, Donostia, Arrasate,\* Iruinea...), ikastaroak antola litezke, inguruetako irakasleak joan litezen.


Harria jaurtikia da. Ea, berori altxatzeko eta ikastaroak antolatzeko antolatzaileak sortzen den!

## Ikastaroa estatistikaren arabera\*

Bitartean, egunikako ikastaroaren datuak emanen ditut, estatistika baten bidez.

Denetara, 53 euskal irakasle aritu izan dira ikastaroan: 30 emakume eta 23 emakume. Irakasle hauetarik 17 ezkonduak dira.

Bestelako datu batzuren\* artean, oso interesgarri dateke,\* ikastaroko partaideen adina\* ezagutzen. Horregatik, adinaren arabera sailkatuko ditugu. Gertatu,\* alboan agertzen diren hiru eta irudian azaltzen da. Batezbesteko\* adina 26,6 urte izan da. Irakaslerik gazteena 16 urtetakoa izan da, eta zaharrena 57 urtetakoa. Irudian argiro ikusten den bezala, adinaren arabera sailkatuz gazteen alderantz jotzen du.



Horrekin batera, interesgarri dateke era berean, irakasleen jatorria ezagutzeko. Dakigunez, Bilbon euskal herri guztietakoak daude; eta, horrela, euskalki guztietakoak biltzen dira bertora. Hori dela eta, bizikiago sentitzen da euskara batuaren beharra. Alboko koadruan, ikastaroko partaideen jatorria adierazten da. Koadrua jatorrizko probintzien arabera egin da, eta ez euskalkien arabera.

Ogibide\* askotakoak izan dira, ikastarora bildu diren euskal irakasleak. Ondoko datuak irakurtzean, argi baino argiago ikusten da, euskal irakaskuntza oraino profesionaldu gabe dagoela. Dakigunez,\* ez da erraza, euskal irakasle izanik, bizitza aurrera ateratzea. Eta hori ezin garbiroago ikusten da, ogibidetan agertzen den aniztasunean.\* 20 estudiante, 9 irakasle (maisu, maistra, etab.), 8 bulegari,\* 4 behargin,\* 2 sekretari, 2 etxeokandere, 2 erlijioso, kimikari bat, kimik analista bat, elektronikari bat, dendari bat, erlojari bat eta haurtzain\* bat.

Pozgarria izan da benetan, horrenbeste jende lanean eta arduraturik ikustea. Euskal Herria arnasa berria hartzen ari dela somatzen dut, aipatu\* ikastaroa egintza isolatua ez dela ba dakit eta. Euskara kultur bidetan sartzen ari da. Euskal irakasleak sortuz doaz. Zarata guti eta egintza askoren premian gaudela esatean, ez dut beste munduko gauzarik adierazi gura. Aitzitik,\* mundu hontako gauza delarik, horixe berori aldarrikatzen\* dut, hots,\* egintzatan hastea.

J. R. ETXEBARRIA

## GEREDIAGA ELKARTEA

Ez dugu gaur goizeon sortua Durango eskualdeko\* elkarte hau. Hamar urte bete ditu bere zereginetan; eta, behin adoretu eta hurrengoan makalki, aurrera doa bere bidean. Sortze zorian tinkoki hartu zuen bidean.

Hala ere, asko dira (eta bai gure eskualdean bertan ere) GEREDIAGA elkarte hau zer den ez dakitenak, edo eta, areago,\* izate horrekiko uste oker bat dutenak.

Zer dugu, zinez\* eta benetan, GEREDIAGA elkarte? Batzurenzat, kultur talde bat gehiago. Beste batzurenzat, erizpide\* berdina duten zenbait adiskideren elkarte bat. Eta susmati doilor\* batzurenzat, halako politika usain berezi bat duen zerbait. Baina guretzat, elkartearen ardurá oso osoan bizi dugunotzat, GEREDIAGAREN izatea argi dago. Eta argi eta garbi ager dezakegu: Euskal izaerak taxutu\* duen herri erakunde\* bat, Euskal Herriaren aintzinako erakundeez jakitun direnek uler-tzen duten eta geroko egunetan zerbait garrantzitsuren oinarri izan daitekeen erakunde berri bat.

Elkarte hau, kultur talde bat gehiago ez delarik, ez da aginte lorratzik\* duen ezer ere. Elkarte honen oinarri sendo eta bakarra, herriarekiko **ardura** da. Hortik sortzen zaizkio, dituen helburuak: «Eskualdeko kondaira lorratzak jagotea\* eta galdutakoak bilatzea. Gogo eta kultur ondasunen zaintzea eta ugaritzea. Herriarren bizibidea hobegotzen laguntzea. Herri lanez, eskualdean batasun giro bat sortera eta gizarte egoera hobetzea». Ez da gutti. Ametsetan egindako gehiegizko nahikundea\* dirudi. Baina ez da hala, ez. GEREDIAGAK lan asko egin du bide hortatik: gehienetan lan isil eta apaletan, inoiz dizdiratsuetan arituz; sarritan arantzez beteriko bidezidorretan\* gora iganez,\* eta lantzean\* behin besta\* giroan ibiliz. Hor dugu euskararekiko lana, Liburu Azoka buru. Hor udal\* gizonen elkarreraztea, zerbitzu komunak sortera. Hor jakintza arloa bultzatzea. Hor herrikeretako eskualde giroa eta kontzientzia berpiztea, eta abar.

Elkartearen eragina ez da berdina eskualdeko herri guztietan. Ez, ez da gauza bera, Otxandion duen eragin sakon eta itzala,\* edo eta Elorrion, Ermuan edo Garain duen ahultasuna.\* Baina hori herritarrengan dago. GEREDIAGA ez da zaharren gauza, ez eta gazteena ere; ez da, gizonezkoek edo emakumeek bultzatu behar duten zerbait. Guztiak onartzen dituen eta guztien indarra behar duen elkarte bat da. Beraz, eskualdeko herriren batean GEREDIAGA ahul aurkitzen bada, herritar horien hau-zo ardura lotan da, edo eta ez dakite zer den gure elkarte hau. Beste erizpenik\* latzago litzateke.

Eta, amaitzeko, amets egiten dut: Bizkaiak holako zortzi elkarte balitu, eta Arabak zazpi, eta Nafarroak sei, eta Gipuzkoak, eta..., eta...

KAPANAGA



## TONTORRA SARIA Aita Luis Villasanteri

Antolatzaileek esan digutenez, aurtendik hasita, sari berri bat bananduko du Gerediaga elkarteak urtero: TONTORRA SARIA.

«Tontorra» zer den? «Tontorra», Nikolas Alzola Gerediaga jaunaren baserriaren izena da. Eta nor da Nikolas Alzola? Itxaron:\* Bitaño, Unai Anai, Markue, Bidaurreta, N.A.G., H.V.B., N. de Cortázar... horik\* denok gizon bat bera da: Anai Berriotxo, Izurtzakoa. Eta, orain jakin dugunez, idazle ezaguna ezezik\* artista ere ba da, pintatzailea. Lan artistiko ugari hori Gerediaga elkartearen eskuetan utzi nahi izan du, horrela Euskal Herriari eskainiz. Fundazio bat egin du, beraz. Eta Gerediaga elkarteak bere gain hartu du, hain zuzen, urtero ohorezko sari bat emateko obligazioa.

TONTORRA SARI honek helburu bat du: zein\* gizon baten zein erakunde\* baten obra eta ekintza sariztatzea. Orain-go hontan —lehenengo aldiz, beraz— Luis Villasante izango da saritua.

Udaletxean\* eta Azokaren haserako ospakizun bezala emango zaio Villasanteri saria.



Anai Berriotxo

Villasanteren lana haintzakotzat\* hartzen dugunok, asko pozten gaitu sari honek. Aipa dezagun, laburki bederen,\* Villasanteren obra. Aita Luis Villasante Kortabitarte Gernikan jaio zen, 1920.eko martxoaren 28an. Frantziskotarra da, Teologian doktoratua. Euskaltzainburua. Euskaraz argitaratutako idazlanik garrantzitsuenak: Goi Argi. Nere izena zen Florentxi. Aitonaren uza. Jainkoa. Jesukristo. Axular. Axularren hitzegia. Eta abar, eta abar.

Milesker Nikolas Alzolari, eta zorionak Luis Villasanteri.

## Hamar urtetako kronika

1965. urtearen hasera zen. San Bixenti eguna, Astolako ermita eta hauzuneko zaindariaren eguna. Hauzune hortako geure etxean, talde txo bat bildu ginen, afaltzeko. Helburua: Astolan dagoen Durangoko Merinaldeko\* Hauzitegi ohia,\* bidezain etxe edo eta turistetxe bihurtzen ez uztea, uste horik\* baitzeuden. Hori zen lehenbizi konpondu behar zen arazoa, ondoren eskualdeko\* elkarte bat sortzea, kulturagintzari batez ere lotua, Hainbeste aldiz bildu ginen, paperak hara eta hona bidali genituen, Bigarren\* Bazkoetan elkarteak sortu genuen, lehen ekintzak egituratu\* genituen, eta hauen artean Liburu Azoka.

Azoka hau egitea, elkartearen sortzaileetarikoen baten ideia izan zen. Leopoldo Zugazarena. Gerla aurretik euskal liburu azoka bat Gasteizen izan zela entzuna zuen nonbait. Behin egindako feria horrek jarraipena behar zuen, egun jakin batetan egina, eraberritua, gaurkotua. Domusainduetarako\* prestakizunak egiten hasi ginen. Beldur ere ba ginen. Argitaldaria gauza ezezagun baten aurrean aurkituko ziren. Agintarien erantzuna ere ez zen segurua. Hemen emakume bi aipatu behar ditugu: Conchita Astola, elkartearen lehen presidentea eta beronen ahizpa Charines, Durangoko Udaltzeko\* bulegaria,\* mugitu behar zirèn hari batzu mugitzen saiatu zirelako.

### I. Liburu eta Diskoen Azoka

1965.eko urriaren 30a zen, arratsaldeko 4rak, larunbata. Egun hortan ireki zen Lehen Euskal Liburu eta Diskoen Azoka. Hogei ta bost argitaletxe etorri ziren, eta katalogoak 28 horrialde izan zituen.

Lau Diputazioentzat, lau stand berezi jarri ziren. Alde batetik, Azoka martxan jartzeko, beharrezkoa genuen Diputazioen itzala, Diputazioen izena. Bestetik, haien izanak ere holako arazoetan gaur

ere zerbait izan behar zukeela uste genuen, beste garai batzutan izan zen bezalaxe. Gure herrialdeetako administralgoan\* Diputazioek dute agintaritza, eta neurri batez kultur argitalpenetan ere bai. Hala eta guztiz ere, oroitzen gara nola bergarar batek galdetu zigun: «Hau ahal da gure Gipuzkoako Diputazioak argitaratu duen guztia, 25 bake urte hauetan?» Behinolako\* «Junta de Cultura Vasca» gogoratuz, Elgetatik honanzkoak ere ez zuela gehiago egin erantzun genion. Nafarroa eta Arabakoak askotaz gehiago egin dute, nahiz eta, egia esan, herrialdekerietan, «navarrismo» eta «alavesismo» txotxoetan\* erortzen diren anitzetan.\* Lau stand horietan zeuden eta orain ere irauten dute, Euskal Akademia eta «Amigos del País» elkartearekin batera.

Sari gisa\* aipamen berezi bat eman zitzaion libururik interesgarrienari, «Sociología y Pastoral de una Diócesis: Vitoria» delakoari. Sari sinboliko hau ez da urtero eman.

Lehen Azoka honek Euskal Herriko kultur mundua harriturik utzi zuen. Gauza berri baten aurrean jarri zuen. «Jai zu ez da izan, gure errietan antolatuten direan beste Euskal Jaieen antzekoa. Euskal Jaia esaten danean, folkloreko gauzetan geldituten gara beti: dantza, bertso, kantu... Beti azaleko gauzak. Azoka onek sakonago jokatu gura izan dau. Folklore gauzak ezetsi\* gura barik, euskal kultura adierazo, indartu ta zabaldu gura izan dau» Hau zioen ANAI-TASUNAK, 1965.eko hazileko\* zenbakian. Beste euskal aldizkari eta erdal egunkarietan ere holako zerbait agertu zen, Durangoko Azokak ordurarteko jaialdien eraketaren muina gairitzen zuelako, hain zuzen ere.

### II. Azoka: «Kirikiño», bertsolariak, «Ez dok Amairu»

1966.ean egin zen, garai berean, Bigarren Azoka. Lehenbizi, alboko herrian, Mañarian, euskal idazle famatu baten mendeurrena\*

## Bizkaiaren aurrerapenerako egiten dugun etengabeko ahaleginaren pilare nagusiak

BILBO-BEHOBIA  
AUTOBIDEA

BILBO-ZARAGOZA  
AUTOBIDEA

BILBOKO  
UNIBERTSITATEA

MUZKIZKO  
BIRFINDEGIA

OINEGITURAZKO  
HERRILAN ESKERGA



MERCABILBAO

AIREPORTUA

SUPERPORTUA

ZADORRATIKO  
UR EKARKETA

Bizkaiaren alde lan egitea: Hauxe da gure jokabidearen oinharri sendoenetarikoa bat, eta beronek egiaztatzen eta iraun erazten du gehienbat Bizkaiko Aurrezki Kutxaren bititza.

Asmo honi zintzoki jarraikiz, Bizkaiko Aurrezki kutxak beti eutsi die herrialde honen hazkunde eta aurrerapenerako egiten diren zerbitzu eta oinegiturazko lanei.

Gaur egunean egiten ari diren edo eta biharco pentsaturik dauden egintza guztietan, beti dago presente Bizkaiko Aurrezki Kutxa; uste baitugu, Bizkaiaren alde ekitea, bizkaitar bakoitzaren onerako lan egitea dela.



Bizkaiaren hazkunde  
bidean lehena

ospatu zen: Ebaristo Bustintza «Kirikiño»rena, Euskal Akademia bertako Udaletxean bilduz.

Aurreko urtean bezala, Andre Mariako elizpean antolatu zen Azoka. Eta bertan egin zen, halaber,\* azkenengoz egin den Bizkaiko bertsolarien txapelketa, Harez gero ez dute hortarako baimenik eman. Lau bertsolari hauk geratu ziren lehenengo: Lopategi, Mugartegi, Arregi eta Muniategi. Orduantxe kantatu zuen lehen aldiz Bizkaian «Ez dok Amairu» taldeak.

680 liburu eta 179 disko azaldu ziren Azoka hortara.

ANAITASUNATik, 1966.eko hazil eta abenduko zenbakietatik, zatitxo bi hartuko ditugu. «Gerediaga alkartearekin zorretan gagoz euskaldunok. (...) Euskal liburuaren azoka bat ikustean, batzuk adurretan geratzen dira: 'Len ezin eitekean olakorik egin!' Ta pozik. Niri, ostera,\* aldrebes pasetan jat. Anketara etorri jat a:ima azoka batzutan. (...) Liburu orreetatik 300-era ez dira allegetan euskerazkoak». Hau Joan Mari Torrealdairena zen. Beste hau, Gotzon Garitonandiarrena: «Durangoko Azoka, izar bat gabean! Poztasuna galdu barik, beste oneik zirikatu bearra dogu: (lotsatu gaitez) gure alderkikeriak eta organizaziñorik eza».

### III. Azoka: 1968.ean, Euskaltzaindia

1967. urtean ez zen Azokarik egin. Andre Mariako elizpea eta beronen teiltatua konpontzen zeuden. Hurrengo urtean, 1968.ean egin zen. Hogei ta zortzi editorial etorri ziren. Katalogoak 42 horrialde zituen.

Urte hontan, Gerediagak Euskaltzaindiari gomit\* egin zion, batzarre bat bertan egiteko, bere Urre Ezteiak ospatzen baitzuten. Kontuan izan behar da, Euskal Akademia sortzeko asmoa Durangon agertu zela, 1886.eko «Euskerazko Jaialdian». Gerediagaren deia erantzunik, Euskaltzaindia Astolan bildu zen, Durangoko Merinaldeko Hauzitegian.

### IV. Azoka: 1969.ean, berriz sariketa

Betiko egunetan eta lekuan. 870 liburu eta 138 disko desberdin agertu ziren. Bost mila liburu eta mila diskotik gora saldu zirela kalkulatu zen.

Libururik interesgarrienei saria eman zitzaion. Euskarazkoetan, «Etxahunen bertsoak gipuzkeraz», Jon Etxaiderenari; eta erdarazkoetan, «Catálogo monumental de la diócesis de Vitoria», Micaela Portillarenari. Baina saria bide hortatik joan bazen ere, Azokan bertan agortu zèn liburu, Rikardo Arregiren «Politikaren Atarian» izan zen.

### V. Azoka: 1970.ean, sariketarik ez

31 stand jarri dira, 980 liburu eta 115 disko. Euskal prentsak ez dio jaramon\* gehiegirik egiten urte hontan Azokari. Zergatik ote?

Euskarazko liburu bat eta erdarazko bi bakarrik aurkeztu ziren sariketarako, eta antolatzaileek saria hutsik uztea erabaki zuten.

### VI. Azoka: 1971.ean, jende asko

33 editorial, 1.050 liburu eta 280 disko azaldu ziren. 60.000 lagun pasatu ei\* ziren Andre Mariako elizpetik, Azoka ikustera, kazetari batek zioenez.

Hara zer zioen Xabier Gereñok ANAITASUNAn: «Jendeak, ikaragarriko proportziotan, euskaraz egiten zituen galdeak. Lehenengo egunean, stand batzuek erdaldun saltzaileak bakarrik zituzten. Baina, giroak eraginik, azken egunerako guztiek zuten euskaldunen bat. Ai, egunero hori eginen bagenu!».

### VII. Azoka: 1972.ean, Nazioarteko Liburu Urtea, bilkurak, sariak berriz

Hiru urtetan Gerediagako taldeño batek antolatu ondoren, berriz elkartearen zuzendaritzak hartzen du eraketa osoa. 43 editorial, 11 diskoetxe agertu ziren. Guztitara, 1.186 liburu eta 264 disko saldu zirela kalkulatu da.

Sariak berriz ematen dira. Euskarazko liburu saritua, Mitxelaren «Lan hautatuak», «Etor» etxearena, izan zen; eta erdarazkoa, Jon Bilbaoren «Eusko Bibliografia», Auñamendi argitaldaria-rena. Aipatu egin behar da, halaber, «Euskal Izendegia - Nomenclator Onomástico Vasco», orain arte egin den argitalpen ugariena, 50.000 aletakoa, Azokan agertu zela.

Urte hontan, UNESCOren Nazioarteko Liburu Urtea ospatzen zen; eta gertakari hori Azokako karteletan ere aipatu zen, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Argitaldarekin bilkura\* bat egin zen, eta, denen arteko koordinaketa baten bidez, katalogo bat egin behar zela erabaki zen. Euskal Herriko bibliotekazainekin ere beste bilkura bat egin zen, gure biblioteka nagusien arteko batzorde bat eta nolabaiteko bateratze bat sortzeko asmotan. Hitzal-

di bi ere eman ziren: bata Juan San Martinek, euskarazko liburuaren produzioa eta sailkaketa ukituz;\* eta bestea Dorao Lanzagorta jaunak, Bizkaiko gizarte, eskualde eta ekonomiazko estudioen berri emanez. Lehenbizikoz, Udaletxean eman zitzaion Azokari hasera, hitzaldi gisako\* sarrera bat eginez.

### VIII. Azoka: 1973.ean, hestualdiak

Amatiño adiskideak tratamendu berezi eta oso bat eskaini zion Azokari ZERUKO ARGIAN, aurretik euskal argitaletxei buruz lan bana eginez, eta ondoren beste berri batzu emanez. Azoka Udaletxean ireki zen, Nikolas Alzola Gerediaga (Anai Berriotxo) izur-tzarrak Durangaldeko euskal idazleei buruzko hitzaldi bat eginez.

Orain arte bezala eta luzatzerik ez dugulako, «accessit» delarik ez dugu aipatuko. Baina lehen sariak irabazi zituzten liburuak, hau izan ziren: Euskarazkoetan, «Axular, Mendea, Gizona, Liburu», Luis Villasanterena, «Jakin»ek argitaratua. Erdarazkoetan, «Estudio socio-económico de la comarca del Duranguesado», Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao-k prestatua eta argitaratua.

Ikastola liburuek toki berezi bat izan zuten, eta urte hontan ere argitaldarien bilkura egin zen. Zoritxarrez, batzuk nahi izan arren, ez zen lortu elkarbiderik.

Baina Azoka honek izan zuen zerbait. Bere hestualdiak iragan zituen, baimenak lortzeko; eta Azokan bertan egiteko zèn Bizkaiko Bertsolari Txapelketa —gero Lekeition azken ekinaldia izango zue-na— ezin egin izan zen.

### IX. Azoka: 1974.ean, elizpetik Merkatu Plazara, beste sariketa batzu

Ahal denik eta laburren arituko naiz. Baina tokirik gabe gelditu orduko, amaitzera noa. Ihazko gauza gehiegirik ez dut esan beharrik, askoren gogotan baitago.

Azokak toki aldaketa izan behar izan zuen, Uribarriko Andre Maria elizpetik Merkatu Plazara. Tradizio apur bat hartua zuen tokitik, azken batez leku egokiagora. Goiko norbaiten nahikeriak\* kalterik baino mesederik gehiago egin zigun; eta, elizpetik ateratzeko baldintza hori bete ondoren, Azoka aurrera irten zen.

Gregorio Monreal jaunak Udal Batzartegian\* egin zuen hitzaldi batekin hasi zen Azoka hau. Bi mila liburu desberdin azaldu ziren Durangoko Merkatura.

Lehen sariak irabazi zituzten liburuak, hau izan ziren: «Jakin»ek argitaratutako Aita Luis Villasanteren «Axularren Hiztegia», eta «Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya», Gregorio Monrealen doktorego\* tesia hain zuzen, bizkaiko Diputazioak argitaratua. Beste sari bi ere izan ziren: bata, kazetaritzakoa, «Kirikiño» izenekoa, Luis Alberto Aranberri «Amatiño»rentzat; eta bestea, alfabetatzekoa, Jose Antonio Azkorbebeitia «Saibiko Artzain»rentzat.

### ... eta aurten X. Azoka

Aurtengoarekin hamar urte eta Hamargarren Azoka. Durangok lortu du —hala uste dugu— Euskal Herri guztirako zabalkunde eta maila duen Liburu eta Disko Feria.

Beste sail batzutan ere, Bilbok ekonomian eta industria astuntan, Tuterak\* kontserbagintzan, Iruineak...?, Donostiak...?, Gasteiz...?, Baionak...?, Arrasatek...?, Gernikak...?, Eibarrek...? beren Feria Nagusi batzu hartuz joan behar lukete. Kultur munduan, lan-tegietan, baserrian eta abarretan ba dago zeri heldu eta zer agertu behar. Elorrioko jaiak «Ferixa Nausixetakoak» deitzen diren bezala, Durangoko Azokak ere, beste hirietako azokei bidea libre utzirik, «Euskal Liburu eta Disko Azoka Nagusia» izena merezi duela uste dut, euskaldunontzat HAMAR asko baita. Ea izen hori ematen diogun datorren urteko Azokari. Zuok duzue hitza, beste euskal eskualdetakook.

J. L. LIZUNDIA



Conventos, 12-bis  
DURANGO

**iruprint**

"LIBURU IMPRIMATZAILEAK"

# Gazteria eta langileria Azokan

Gazte asko aritzen da lanean, Azoka prestatzen. Edo, behintzat, stand-etik stand-era pasatzen da, Azokak dirauen bitartean. Baina, egia aitor, besterik ezean edo pasiboki dator.

Gazte gehienok oso urri gabilta euskal kulturari buruz.

Liburu berriak etab., gutti batzurentzat ezik, besterentzat aldamenetik iragaiten\* dira.

Agian,\* euskal gazteriak, Plaza & James edo Salvatekoen berri, Kriselu edo Auspoakoen baino gehiago du, Ulster-ko politikaz Euskal Herrikoaz baino gehiago duen bezala.

Norena da errua?\* Edo —galde hau erreakzionario bihur ez dadin— nola konpon genezake arazo hau? Nabari\* denez, egoera sozio-politikoa, kulturala, eta sozio-linguistikoa bera, aldatu egin beharko litzateke. Baina, topiko hauetatik irtenik, hurbilagoko jokabide batzu\* ere hartu beharko lirateke.

Gazteek ba dute kulturari buruzko kezka. Euskal Herriko luze-zabalera osoan bezala, Durangon ere askok dihardu «Gerediaga» elkar-tearen inguruan. Eta euskal kulturgintzak erantzun bat eman behar die gazte horiei, idazleetatik hasi eta argitaldariataraino. Alde batetik liburuen gaiak, eta bestetik prezioa. Gazte gehienek paltrikera\* hestuek ez du zenbait liburu eros-teko posibilitaterik. «La Gran Enciclopedia Vasca» galantaz ba legoke zertaz eztabaida. Eta zabalkundearen politiká programazio herrikoi batez lortu beharko litzateke.

Dudarik gabe, gazte askok atseginez hartzen du Azoka, zeren\* liburu berriak ikusi ahal izatea, argitaldaria ezagutzea eta giroa bera esperimintatzea suposatzen baitu. Kontutan izan behar dugu, gazte horiek euskal kultur gizar-tearen dinamikan, gaurkoz eta gerorantz, indar haundi bat osatzen dutela, eta bideak agiteke\* daudela, norbaitek harro harro besterik erakutsi arren.

Jose A. Sarrionandia

Durangoko Azoka hainbat bider aipatu dugu. Hainbat bider esan dugu, Euskal Herriko onena dela, ondo antolatzen dela, jende asko hara biltzen dela, eta abar. Baina guttitan aztertu dugu zelako\* jendea biltzen den. Edo eta, hortaz aritu garenean, jendearen adina\* edo euskal munduan mugitzen diren pertsonaia batzuren\* izenak aipatzera mugatu gara. Beharrezko ikusten dut, ordea, Azokara zelako jendea joaten den kontutan izatea.

Zenbat langile hurbiltzen ote da Azokara? Nire eritziz, gutti, oso gutti: langile bulegariak\* bai beharbada, baina langile xeheak gutti.

Non dago gakoa\*? Antolatzaileei ezin bota errurik.\* Azoka, argitaratzen diren liburuen erakustoki bat baino ez delako. Beraz, argitaldari eta idazleak izan daitezke neurri batetan errudun, langile arazoak aztertzen larregi\* ahalegintzen ez direlako, liburu bat edo beste kenduz gero, ez baitago aukeratzeko ezer haundirik. Baina ez dago hemen guztia.


Euskal kultur munduan zerbaitetan ari garenek erraz konturatzen gara, beharginak\* ez direla gure mugimenduetan larregi sartzen. Durangoko alfabetatze taldean, adibidez, gutti batzuk bakarrik parte hartzen dute. Eta beste kultur ekintza batzutan ere, gauza berdin xamarra gertatzen da. Beraz, konponbidea ez dago Azokan, kultur ekintzak programatu, muntatu eta aurrera eramaten ahalegintzen diren antolamenduetan baikik. Planteatzen ote dute arazo hau kultur taldeetako eratzailleek?

Langile mugimendu bat dagoenik ezin uka, eta herrigintza baten barnean —euskalduna izan behar badi behintzat— ezin diezaiokegu horri leporik eman. Nahitaez saiatu behar dugu, tokian\* tokiko berezitasunak kontutan hartuz, elkarrekin aurrera egiten. Beraz, euskal langile mugimendu ahul\* baten aurrean, ez da harritzekoa, Azokara beharginik ez agertzea; eta kultur arloan gabiltzan guttiori dagokigu, arazo horri aurpegi ematea.

Isabel



## Alfabetatzea eta Azoka



Alfabetatzean ari garenez gerotzik, maiz\* entzun dizkiegu holako salakuntzak, euskaldun derizkien\* talde batzutakoei: «Oraindik ere hortaz ari zarete?» «Gure herrian ez bailegoen\* aurreragokorik egiteko ere!».

Beste hainbat problema biziagotan bizi den populu honek —haien eritziz— ba du beste arazotan aritzerik;\* eta horietatik hasi behar dela diote. Bai, jaunak! Ederto esana, eta ados\* nago zuekin neurri batez. Baina hasi eta egin eta iraun egin behar dugu, arazoari ebazpena\* eman nahi badiogu. Eta nork egin behar du? Nire eritziz, jaun horiek esaten dutena zurikeria\* hutsa da, zeren\* ez baititugu ikusten ez bata eta ez bestea egiten. Hor gelditu ohi dira horien ekintzak: gisa\* hortako esaldietan.

Hola izanik, maiz gertatzen da, gure ekintzetan lan guztiak pertsona batzurengan jaustea. Adibidez, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, antolatzaile izatea, editorial baten stand-eko arduradun eta saltzaile, Azo-

kako atrakzioen batetan parte hartzaile, eta sari irabazle, eta abar.

Beste ekintza batzutan ere neurri beretsuko zereginekin aurkitzen dira, zerbait antolatzeko kezka duten banakatxoak: leporaino lanez eta nekez. Non daude, bada, teknikoak?

Durangoko Azokaren antolatzaileek ez dute ahantzia Alfabetatze alorra, GEREDIAGAKoak berak baitira, Durangon hain ongi irauten duen alfabetatze taldearen babesleak. Hortarako, alfabetatze talde horren eraginez edo, ihaz sari berezi bat antolatu zuten Azokan bertan: «Alfabetatze Saria». Eta Durangokoek ondo erantzun ere.

Liburu azoka batetan «Alfabetatze Saria» edo gisa hortako zerbait antolatzeak bere garrantzia du, zeren, euskal kulturgintzan liburuak maila gorena duelarik, irakurtzeko alfabetatua izan behar baita lehenik. Orduan, Alfabetatzeak oinarritzeko ekintza bat betetzen du noski, euskal liburuak zabaltzeko, eta era berean euskal kulturaren lantzeko eta sendotzeko.

Horregatik, beharrezko ikusten dut, urtero Azokan sariketa bat edo horrelako zerbait egitea, jendea alfabetatzeaz eta beronen garrantziaz kezka dadin eta beste herrietan ere alfabetatze taldeak sortzen eta promozionatzen has daitezen.

Asko dira, Azokara hurbildu eta hainbeste euskal liburu ikustean, harriturik gelditzen direnak. Ez zuten uste horrenbestekorik. Orduan gogo berri bat sortzen da haiengan, irakurri gura dute; baina, hortarako, alfabetatzearen bidez, euskara ikasi behar. Giro horrek eraginik, urtero etortzen zaigu zenbait jende, euskal ikastaroen berri jakitera.

Arestion\* esan zidan adiskide batek, Durangoko alfabetatze taldea dela beharbada, euskararen irakaskuntzan hain luzaro —sei urte gutienez— irauten duen bakarra. Eta hori, ekintza nagusi hortaz gain beste zenbait duelarik. Egun hauetan irakasle eta batez ere toki faltaz aurkitzen da. Haundia da benetan talde honen arrakasta!\*

Alfabetatzekook Azokari buruz gehien nahi, genukeen zera da, halegia,\* Alfabetatzeak jendea eraman lezala Azokara, eta Azokak alfabetatuak izateko gogo sortetaz liezaiela.

AZKORBE

**SAGARNA KAFETEGIA**

Jaki beroak - Kremazko kafea

Fr. Juan de Zumarraga, 17

**DURANGO**



**LIBURUTEGIA**

Artakale, 14

Tel. 681 07 77

**DURANGO**



## DURANGO hiru egunetan EUSKAL KULTURAREN HIRIBURU

Kultura idatzi bakoitzak ba du bere Feria. Entzunenak aipatzekotan, Liburuaren Frakfurteko Azoka, Nicekoa eta Barcelonakoa aipa nitzake.

Guk ere ba dugu geurea: Durangoko AZOKA. Eskertze-koa da, Gerediaga Elkartek, hau antolatzearekin, euskal kulturari egiten dion mesedea. Euskal kulturak —liburuak eta diskoak— merezi zuen holako eskaparate edo erakustoki bat. Ba du orain. Eta lehena izatearen, asma-tzearen eta irautearen meritua Gerediagari dagokio.

### "Jalgi hadi plazara!"

Hazilean\* urtero egiten den Azokak bere izena egi-na du. Azoka batetan euskal liburuak jartzea, bidezko\* eta normaltzat jotzen dugu. Orain bai; baina duela zen-bait urte, ez zen holakorik. Jendeak —betiko jende xe-heak, eta beste askok— ez zekien ia,\* euskal libururik zegoenik ere. Oraintxe bertan ere. Durangon bat baino gehiago ikusi dugu harriturik, hainbeste liburu euskaraz ikusita. Azokarekin, Etxepareren garrasia seriotan har-zen dugu: «Euskara, jalgi\* hadi plazara!».



Plazan dago orain euskara. Horixe da beharbada Azokaren lehen kultur eginkizuna: liburuak eta diskoak erakustokian ipintzea, horrela euskaldun ohartugabeari zer dagoen azalduz. Ez eskolak ez telebistak euskal kulturaren berririk eman ez dion euskaldunari, Azokak eman-go dio agian.\* Hona, euskal nortasunaren kontzientzi-az jabetzeko beste bide bat.

### Liburuak, merkantzia?

Kapitalismoak liburuak merkantzia bihurtu du, merkantzia kulturala, noski. Salakuntza hau sarritan entzun ohi dugu. Baina honen soluzioa ez dago liburuak saltzeko orduan, baizik eta egitekoan, produzioan. Liburuak beharkizun\* objetiboei, herriaren premiei ez baina produzio aparatuen interesei eta errentabilitateari erantzuten badie, hor dago gaitza. Halegia,\* industria kultural bat, kulturaren legetara baino industriaren logikara errazago lerratzean\* dago arriskua.

Eta euskal liburuak arazo hortan zer? Euskal liburu-gintza dela eta, nor mintza daiteke euskal industriaz. Bai kaskarra! Gehienez ere, euskal liburuaren artisautzaz\* mintza gaitzke, ez industriaz. Bestalde, helburuetatik epaituta, oker dabil, Durangoko Azoka Frakfurteko Liburu Azokaren logikan ikusi nahi duena.

Gure artean, euskal kulturaren kondizioengatik, Durangoko Azokaren lehen eginkizuna salmenta ez baina aurkezpena\* dela esango nuke. Baina, zorionez, salerosketan ere ikusten da jendea Azokan, eta gero eta gehiago. Euskal kulturarentzat datu positibo bat da hori. Hor ikusi bide\* dugu, euskal liburuak kategoria batetara iritsi\* dela, ez duela lotsarik zertan ukan,\* presentagarri eta irakurgarri dela.

Euskal liburuak salgai dago. Erosgarria delako dago salgai.

Jose Antonio AZKARATEren

**bodeGON**  
**AZOKA**

Uzdaiazpikoak eta gaztaiak

Gral. Eguía, 15

Tel. 681 10 08

**DURANGO**

## Euskal kulturaren ispilu

Liburuen eta diskoen erakustokia izanez, gure liburu produzioaren ispilua da Azoka. Ispilu ona, gure kultur-gintzaren kontraesan batzu begien bistan jartzen dituen: hala\* nola, erdal liburuen kopuru\* nagusitasuna, euskal liburuen presentapen eskasagoa, eta euskarazko eta erdarazko liburuen arteko gaien desberdintasuna. Goazen banan banan aztertzeraz, gaiak merezi du eta.

Azokan, erdal liburuak euskarazkoak baino ugariago dira. Sartzearekin batera ikusten da aldea,\* standen numeroari begiratuz. Zergatik alde hori? Lekurik balego, gure herri egoera osoa azertu behar litzateke, esplikazio bila: publiko irakurle zabalagoa du erdal liburuak, eta ezin daiteke ahantz gure arteko analfabetismoa.

Bestalde, euskal eta erdal liburuak elkarren ondoan ikusirik, itxuraz euskal liburuak apalago direla konturatzeko gara. Ekonomi arazo bat dago denaren azpian; eta, gainera, erdal liburuak helburu desberdinekin eginda daude, eta salmenta modu diferentea dute. Euskal liburuak plazan orain arte gutiago agertu da, liburudendetan gutiago ikusten da, batez ere abonamenduen bidez eskuratzen duelako irakurleak. Baina nork uka, euskal liburuak geroz eta apainago datozela? Salto ikaragarria egin dute azken urte hauetan.

Eta azaletik mamira sartzen bagara, zer? Diferentziak oraindik ere markatuago agertzen zaizkigu. Euskal liburuak gaiari ematen dio lehentasuna, eta kulturaren gaiak oro\* euskaraz ematea du helburutzat. Erdarazkoak, osteraz,\* gai berezi bezala Euskal Herria, euskal gizona, euskal ohiturak, euskal folklorea ukan ohi ditu.

Guretzat, euskal kultura euskaraz egiten da.

## Ohitura berriak

Okasio paregabea da Durangoko Azoka, edozein kulturak behar duen **feedback**\* delakoa lortzeko, erosleari entzunez, irakurleari jaramon\* eginez, nolabait herriaren boza —gutierrez haren oihartzuna\*— jasoz. Hurbil egote horren eta harreman hauen premia, beste edozein kulturak baino handiagoa du gureak. Beharrezkoa dugu, hain zuzen, salatzen zaigun eta benetako arriskua den herriaren bizitzaren eta kultura idatziaren tarte hori zulo biiaka\* ez dakigun.

## EL PORTICO

Lurrindegia - Drogeria

Artekale, 1  
Sta. Maria, 14  
Tel. 681 02 39

DURANGO



OLBIA GAITA

Herriari, Azokan, nola mintzabide gehiago eman, hartzaile hutsa izan ez dadin? Euskal kulturari (liburu, disko, aldizkari, kantu, eta abarri) buruzko sugerentziak, ke-xak, proposamenduak, haserrearen standen batetan uzteko posibilitatea eskainiz? Beharbada.

Ohitura bat jadanik\* sortzea lortu du Durangoko Azokak. Kultur munduan dabilzanak, denak horra bil ezate. Liburugintzakoak, aldizkarietakoak, kantariak, ikas-toiletako irakasleak, alfabetatze antolatzaileak... denak datoz bizpahiru egun horietan Durangora. Azokari esker, behingoz bederen,\* euskaltzalea norbere taldetik ateratzen da, ghettoa uzten du, plazara jaigutzen da, kideekin edo ezaupenen bat edo hitzasperturen\* bat edo egiteko.

Etortzeko joera hortaz gehiago baliatu behar litzateke Gerediaga. Egia esan, behin baino gehiagotan saiatu da, eta gauza batzu egin ere bai. Jendearen sakabanatzeak eta taldekeriak du, agian, jarraipenik ezaren errua.\* Den den, aurrera jo behar da. Denok ikusten dugu egun horietan, Azokaren inguruan, funtsezko\* eta ongi antolatutako Bilkura\* batzu eratzeko premia: kultur arazoak aztertzeko, erakunde\* batzu sortzeko, elkarlanak programatzeko. Gerediagak, hori eta gehiago egiteko, ba du adorerik eta gu guztion konfiantzarik.

Bizpahiru egunetarako bederen, Euskal Kulturak ba du Hiribuçu onartu bat: Durango.

Joan Mari TORREALDAY

# Aurpegi zahar eta berri Azokan

## Durangorako bidea

—«Nora joango garen? Nora joango gara, ba, gaur? Durangora, Liburu Azoka ikustera. Atsegin zaigu euskal liburu zahar eta berri ikustea, hango giroan ordu batzu botatzea, euskal gauzetan ari diren lagunak agurtzea».

Herri ez handi eta txiki batetako gazteak dira, hori dioskutenak: Alfa-betatze taldekoak, Kili-Kiliren laguntzaileak, ikastetxean euskaraz gogotsuen ikasten ari diren bi edo hiru.

—«Beraz, herriko gazteriak Durangorako bidea hartu du gaur» —zirikatzen ditut.

—«Gazteriak... gu eta bestetxoren batzu izan ezik, iganderoko bideak».

## Elkar ikustera

Haserako galdera bera egiten diot herri hortako euskal irakurle porrokatu eta noizean behingo idazle bati.

—«Nora gaur, Durangoko Azokara izan ezik? Egia esan, liburutan ez da berri askorik eta euskara larregirik izaten, urtean zehar hartzen ditugunetik at.\* Baina hara biltzen dira bateko eta besteko irakurle, idazle, lagun zahar eta beste. Azokako erakustokietan, harantz honantz, liburu eta diskoak ikusten eta aztertzen zeintzu\* eta zenbat eta zer arduraz ari diren ikustea ere guztiz zait atsegin.\*

## Kaixoka eta agurka

Azokan nago. Ikusleentzat eta erakustokientzat, azken urteko lekua erosoagoa\* da, Andre Mariako elizpea baino. Han non diren lehengo gazteak. Bat edo besterekin taldea gehitu egin zaie. Batzuren\* besapean liburu berriak ageri dira, elkarrizketa bizi eta alai batetan dihardutelarik.

Ez dira berak bakarrik Azokan. Zahar, adin oneko eta beste gazte asko, harantz eta honantz. Batzu, liburuak aztertzen, erkustokiei itsatsita.\* Beste batzu, ezezagunak. Ordurik\* ordura aurpegi berriak: gehienak ezagunak, eta betikoak beste asko.

Han non den lehengo irakurle-idazlea ere. Kaixoka\* eta bostekoa ematen eten gabe. Aurreko urtean Azokan bertan ikusitako euskaltzale adiskide asko agurtu behar du. Han dira, izan ere, Akesolo, Juan San Martin, Intxausti, Kerexeta, Berriotxo, Xabier Gereño (hau Azokako ordu guztietan aurki daiteke), Mikel Zarate, Amatiño (hara orduko), Andre Mariako elizpean begiak igurzten egon ondoren, ea egunaz oker ote den edo Durangora gabe beste

nonbaitera joan ote den), Goikoetxea, Laspiur, eta abar luze bat. Durango eta ingurukoak, zer esanik ere ez. Eta euskaltzaleetarik nor ez? Aldizkarietan-eta izenez nahiz ezizenez agertzen direnak aurpegiz ezagutzeko ere, era\* egokia izaten du gure ezagunak Durangoko Azokan.

## Manolo Escobar?

Disko erakustokira heldu naiz. Halako batez, boz mehe bat entzuten dut. Erdaraz dihardu:

—«Aizu,\* ez ahal duzu Manolo Escobar kantariaren diskorik? Nola izan daiteke hori?» Irribarre batzu somatu ditut.

—«Azoka hontan —dio batek—, liburu eta diskoak ezezik,\* martzianoak ere ba dituk». Gertaturikoa.

## Gazte bizardun bat

Haurrentzako kolorezko liburuxka polit batzu diren tokian gelditu naiz. Nire alboan, gazte bizardun batek:

—«Euskaraz txatxukeriak\* baino ez dituk\* idazten. Umeentzat eta burgeskumeentzat idatzi ere».

—«Ezagutzen ahal duk, ba, idazten dena?»

—«Ezagutu... ezagutu ez, baina hemen aurrean duk esan dudanaren froga».\* Ez zekien «Irakur sail», «Etor», «Gero», «Jakin», «Kriselu» eta beste ziren ere. Gertaturikoa, aurrekoa bezala.

## Bultzada bat!

Liburu erakustokirik liburu erakustokira ari naiz. Urtean zehar euskal li-

buru berrien agertzearen jakitun ez denak, urterik urtera euskal liburu gehitze bat nabaritzen\* du. Baina Azokan, oro\* har, urtero erdal liburu gehiago gure hizkuntzan baino, bai eta erdal stand gehiago euskarazkoak baino. Kezkatuta geratu behar euskaldunok, eta amets batekin: Noiz gure kultura euskaraz, noiz bukatuko oraingo kontraesan hori? Ezer egin ote dezake Azoka honek, asmo horri bultzada bat emateko?

## Libururik egokienak

Zein da gramatikarik onena? Liburu hau edo beste hori erosiko ote dut? Umeentzat, zeintzu liburu egokienak? Eta gazteentzat?

Ez ditut galde hauk\* asmatu, Azokan batetik bestera nabilela entzun baizik. Eta kezka gogorra sortu zait. Ez ote da kaltegarri, urlia\* gramatika hortatik ikasten hastea, eta berendia\* liburu hori irakurtzen hastea? Ez baitago gramatika hori haur horrentzat egokituta; ez baitago gazte hori, urlia edo berendia liburu horren euskara ulertzeko gerturik.\* Eta ondorioa, euskara ikastea eta euskaraz irakurtzea bertan behera uztea izaten da gehienetan. Hamaikatxo horrelako ezagutzen dugu. Erosle bakoitza alfabetatua balitz! Edo eta alfabetatua ez den erosle eta eroslegai bakoitzak (gehienak, tamalez\*) argi emaile bat balu!

Durangoko Azoka: liburuak, diskoak, aurpegi zahar eta berriak, agurrak, giroa, kezka...

GADU



## AZOKAKO ERAKARPENAK

Azokak irauten duen egunetan, Durango Euskal Herriaren ardatz bihurtzen zaigu urtero. Eta Durangon, gauza guztien gainera, Azoka bera dugu ardatz.

Azokak sorreratik izan du barnean zenbait ekintza, jedearentzat deigarri edo entretenigarri. Lehen egunetik gaur arte, hainbat erakurpen edo atrakzio izan du bere osotasunaren hornigarri. Eta hemen datza,\* Gerediagatarek sortu eta aurrera ateratako Azoka honek duen berezitasunik nabarmena. Hemen, Durangon, Azoka da ekintza nagusia, beste guztiak ardatz horren inguruko betekizunak direlarik.

Euskal Herrian barna egiten diren gehienetan, beste ekintza multzo baten zurrumiloan\* galduta ikusi dut azoka: kantaldi, Haurren Egun, hitzaldi, folklore taldeen ateraldi eta horrelakoekin Euskal Aste edo Hamabostaldi bat osatzen. Durangon ez.

Hala ere, erakurpenek ba zuten eta ba dute beren garrantzia. Lehenbizian,\* Azoka ezezaguna zèn garaian, erakurpenak dei bat ziratekeen.\* Baina, izena eta izana hartuz joan den neurrian, gaur egun eskualdeko folklorea ezaguterazteko toki aproposa dugu Azoka.

Sorreratik izan dituen erakurpenei begiratu, eskualdekoak\* eskualdetik kanpokoak baino askoz ugariagoak izan direla ateratzen da.

Besteak beste, lau urtetan egon dira bertsolariak (lehenengo hiruretan eta ihaz). Urtero, ez da falta izan kantari zenbait, taldeka zein\* bakarka. Ugari dantzari taldeak izan dira, alferrekoa ez baita eskualdean duten hedadura\* eta oinarri irmoa.\* Eta tarteka izan dira albokari, dultzainari, trikitalari eta txalapartariak. Txistulariak, berriz, urtero urtero izan dira.

Eta, amaitzeko, neuri behinik\* behin jazotakoa.\* Bat edo beste beti agertzen da informazio stand-era, erakurpenen berri jakin nahian. Ez dute nahi izaten liburuen katalogorik. «Zertarako? Libururik ez baitut irakurtzen» esanez, poz pozik joaten dira erakurpenen egitarau\* horriarekin. Zorionez, bat edo beste baino ez dira izaten.

JOAN A. AROMA

### DANTZARI TALDEAK

#### ESKUALDEKOAK

Abadiño  
Arrazola  
Arri Aundiko Azkorbe  
Berrizko Iremiñe  
Berrizko Izarrak  
Durangaldeko Erregelak  
Abasolo eta Albizuri  
Bittor Bernas eta Patxi Uriarte  
Durangoko Tronperri

Dorangoko Txoritxu Alai  
Elorrioko Betsaide  
Garai  
Iorreta  
Izurtzako Mendigain Txiki

#### KANPOKOAK

Erketz  
Galdakaoko Andra Mari  
Ondarroako Kresala bikotea

### FILMEAK

Avignon  
Ereagatik Matxixakoraino

Erria  
Nafarroa, Lau Urtaroak

### MUSIKARIAK

#### ESKUALDEKOAK

##### Dultzainaria

Juan Bilbao

##### Soinujoleak

Eusebio Bilbao  
Luis Angel Sarobe

##### Txikitilariak

Serafin eta Juanita

#### Txistulariak

Alejandro Aldekoa  
Durangaldeko txistulariak

#### KANPOKOAK

##### Albokariak

Arratiako albokariak  
Leon Bilbao  
Txilibrin

##### Txalapartariak

Arza anaiak

##### Dultzainariak

Sodupe anaiak

### KANTARIAK

#### ESKUALDEKOAK

Bastida  
Xeberri  
Ametsak taldea  
Arin Arin taldea  
Astarloa zortzikotea  
Gau Txoriak taldea

#### KANPOKOAK

Bittor Egurrola  
Idoia  
Jose A. Villar  
Maite Idirin  
Biotz Alai taldea  
Beti Alai taldea  
Erkoleta taldea  
Erlak taldea  
Ez dok Amaitu taldea

### BERTSOLARIAK

Amuriza  
Areitio  
Arregi  
Azpillaga  
Enbeita A. (zuzentzen)  
Gurtubai  
Intxaurreaga

Larrañaga  
Lopategi  
Martitegi  
Mugartegi  
Muniategi  
Olarra  
Sardui

**Oharra:** Bi urtetako erakurpenen datuak falta dira.

# FEDEA eta EKINTZA

Donostiako egunkari batetan irakurri berria dut, Alemaniako egindako estatistikek adierazten dutenez, Estatu hartan katoliko praktikatzaileen kopurua\* portzentaia handi batetan jaitsi egin dela azken urteotan.

Nik ez dakit, gure artean horren antzeko estatistikarik egin denik. Baina begien bistan dago, gure herriko gehiengoak\* Elizatik alde egin duela, eta barnean gertatzen garenotatik asko, hartu behar dugun erabakiaren aurrean. zalantza bizitan gaudela.

Ez dakit, Alemaniako Hierarkiak eta hemengoak problema hau aztertu ote duten. Baina, portzentaia horren larritasuna ikusita, baietz pentsatzen dut, ez baitut uste, horren\* itsu izan daitezkeenik. Eman dezagun baietz, aztertu dutela. Orduan, egoerak zergatik irauten du hain oker? Zergatik segitzen du jendeak Elizatik alde egiten? Zergatik ez dira gure zalantzak uxatzen?

Ez dut teologiarik ikasi, eta ez naiz orain eta hemen teoria konplikatua azaltzen hasteko gauza. Eta, gainera, ez dut horren beharrik, zeren\* gizonen Jainkoarekiko loturak hori baino sinpleagoa izan behar baitu, eta erligioa ez baita jakintsuen monopolioa, gizon guztien zeregina baizik. Beraz, katoliko praktikatzaile soil bezala idatzi nahi dut; herriko gizon normal bezala, neure kezkek azaldu gura ditut, aitorten hauekin Eliza eta neure Herria lagunduko ditudalakoan.

## Katolikoak politikan

Katolikoek, politikan sartzen direnean eta batez ere buruzagi bezala ari direnean, katoliko izena konprometatzen dute, maiz\* katoliko legez\* agertzen baitituzte beren buruak. Horrela gertatzen denean eta Eliz Hierarkia isilik gertatzen denean, ba dirudi, erligio katolikoaren izpiritua politikara era zuzen batez eramaten dela, hau da, buruzagi politiko eta katoliko haien esanak eta eginak ortodoxoak direla.

Honek ez luke zalantzarik sortuko, katoliko bezala agertzen diren buruzagi politikoek bide berdintsuak eramango balituzte. Baina ez da horrela gertatzen. Desberdintasun bat toleratu behar dela? Bai, noski! Pluralismo batekin ados\* nentorke. Baina nire kezkek, buruzagi katolikoaren artean bide oso desberdinak ikusten ditudanean sortzen dira. Ba dirudi, katoliko izatea anarkia hutsa dela. Esadazue, adibidez, ea nor den katoliko, Pinochet ala Europako edozein alderdi kristau demokratikoa? Biak direla erantzungo lidakeenari, eroturik dagoela ihardetsiko\* nioke, zeren Txilekoak sagar ustelak, onak direnak honda ez daitezten, kakartera bota behar direla uste baitu; Europako kristau demokratek, berriz, beste eritzi bat dute sagarrekiko, eta zuhaitzean bizitzeko eskubidea denei ematen diete.

Guregandik hurbilago dugun beste adibide bat ipiniko dut. Kristoren alde ari ei\* diren eta haren izena daramaten Sánchez Covisa jaunaren taldekoak, zuzen dabilta? Elizak ez ditu ez bedeinkatu ez gaitzetsi. Baina, erdal esaera batek dioenez, «el que calla, otorga»; eta onesten dituela pentsa liteke. Orduan, hemen, haiengandik urrun dauden joera politikoak dituzten katolikoak, oker ote daude?

Laburpen gisa,\* jakin nahi nukeena zera da: Izan daitezke hain desberdinak, katoliko batek har ditzakeen

# Kristau Bidea

Helduentzako Holandako  
«Kristau Ikasbidea»

Zer da liburu hau?

Orain arte  
euskara batuan kristau fededunek  
izan duten libururik aberatsena

Moldaketarik probetxagarriena du:

- irakurtzeko nahiz aztertzeko pentsatua.
- bakarka nahiz taldean erabiltzeko eraturia.
- puntu jakin bakoitza inguru osoarekin lotuta ikusteko moldaturia.

Erabilgarriagoa izan dadin, lagungarri aberastua:

- hizkuntzaz Euskal Herri osorako ulergarriagoa izan dadin, horrialde bakoitzean oin-ohar ugariak ematen dira.
- edozein gai bere osoan ulertzeko, irakur-puntu bakoitzetik gainerako pasarte osagarrietarako deiak ematen dira.
- ia 2.000 hitzetako hiztegia du atzean. Kristau gaien hiztegia ere gertatzen da, horrela.

Aurkibide zabalak ditu, gaiak —ttikienak ere— berehala aurki daitezten:

- aurrean, aurkibide laburtua, liburu osoaz begirada batean jabetzeko.
- puntuz puntu, alfabetuaren arabera aurkibide bat atzekaldean.
- gai guztien beste aurkibide bat, xehetasun denak jasoz.

Euskal «Kristau Ikasbide»en kondaira laburra.

J. M. Rementeria-k egin du historia hau.

## Salneurriak

750 pta. liburudendetan.

% 10 pta. merkeago ANAITASUNAREN harpidedunentzat.

## Eskabideak

JAKIN. Cuartel, 2. Tolosa, Gipuzkoa. Tel. 651106.

## Eskabide txartela

ANAITASUNAREN harpidedunei eskaini diezuen salneurri berezian, KRISTAU BIDEAREN ale bat jaso nahi nuke. Bidaliezadazue helbide honara:

Izen-abizenak .....  
Bizitokia .....  
Herria ..... Probintzia .....

joerak? Katoliko batentzat, edo izen hori daramanarentzat, ba dago mugarik politikan?

Bizitzako beste arlo batzutan ere gertatzen da horrelakorik. Adibidez, maiz entzuten dugu, negozioek ez dutela bihotzik, dendari batek zilegi\* duela edozein gauza, galdurik duela lapurretaren zentzua. Negozioetan permititzen (edo toleratzen) dena, politikan ere bai? Orduan, katoliko izatea norako? Tenpluetarako soilik? Galde hauen guztion aurrean sortzen zaizkidan zalantzak uxatzeko, beharrezkotzat jotzen dut zera jakitea: bai politikan eta bai bizitzako beste arloetan, ea zeintzu\* diren katoliko batek dituen mugak, eta ea permiti daitekeen, mugetatik irteten denak katoliko izena eramatea.

## Eliza eta Euskal Herria

«Andereño» izeneko nire elaberri\* bat irten berria da, eta 91. horrialdean inprimeriako huts bat du. Probak eman zizkidatenean, zuzendu egin nuen; baina ez zidaten kontutan hartu. Originalean, personaiak, Elizaz kexatzen denean, honela dio: «Eta ez bakarrik euskara batuaren arloan, lurren zatiketan ere berdin jokutzen du. Noiztik ari gara eskatzen Bizkaia eta Araba Burgosko artzapezpikutegitik askatzea eta Iruinekoari lotzea, horrela Euskal Herriari osotasun bat emanez? Eskatu zaio, bai; baina gorrarena egiten du».

Ikus dezakegunez, Eliza Katolikoak ez du onhartzen Euskal Herria. Orduan, katoliko bat izan daiteke euskalzale? Euskalzale bada, Elizatik at\* ote dago? Elizak gizonen ispilu eta gidari izan behar badu, zilegi zaio katoliko bati Euskal Herria onhartzea, Elizak berak egiten ez badu? Problema hau gehiago iluntzeko, Gasteizko

apezpikuaren kasua dugu. Herri bereko kleroa eskatzen du Elizak; baina Araban euskaldun ez den apezpiku bat dago katoliko buru bezala. Gertakari honek baieztu egiten du aipatutako zalantza, hau da, Eliza Katolikorentzat Euskal Herririk ez dagoela. Eta orduan, guri, katolikooi, zein jokabide hartzea permititzen zaigu? Honek ere Hierarkiarengandik argitasun bat mereziko luke.

Hitz batez, jakin nahi nuke, katoliko naizen aldetik, euskaltzale izan naitekeen. Ba dirudi ezetz, Elizaren bidea ikusita. Baina segur jakitea zait beharrezko, zeren nik Baizkaia eta Araba Euskal Herria direla sinesten baitut. Elizarentzat, berriz, Gaztela dira. Nik, Euskal Herriko apezpikuak euskaldunak izatea nahi dut; baina Elizak Peralta jauna bidali zuen Gasteizera. Eta honela «etabar» luze bat aipa nezake, euskalzaleok geure euskalzaletasunean oker gaudela frogatzen duena.

Gaur egun nabarmen diren adibide batzu\* ipini ditugu; baina maila apalagoetan beste hainbat dago erantzun baten zain. Ba dirudi, Elizak ez duela bere burua konprometatu nahi, luzapenak ematea atsegin zaiola. **Eta** orduan zera gertatzen da, Eliza elizkizunetara **mu-**gatzen dela. Baina elizkizun hauei gatza falta zaie, jende **askori** motelak iruditzen zaizkie, Elizari salatzen dioten konformismoaz kutsaturik ikusten dituztelako.

Jainkoagan sinesten dut. Eta niretzat Elizak, Jainkoagana naraman bidea izan behar du. Eta horrela ez balitz, Elizak ez lidake balio izango. Hainbati, erantzun gabeko galdeok lainotu egin diote bide hori, guztiz galdu arte-raino. Beste hainbati lainotzen ari zaio, eta neuri ere bai. Horregatik, lainotan bizi garen guztion izenean, bidea argi diezagun eskatu nahi diot eta behar diot Elizari. Gaur, bihar beranduegi gerta liteke eta.

Xabier GEREÑO



**Gaurkoa zarenorri  
guk ezer eskaintzean,  
biharko emakumeari ere  
ari gara eskaintzen.**

Laguntza berriak  
zuri ematean,  
zure nekeak, zure kezka zaharrak  
dihardugu arintzen.

Berriak dira,  
zuzentzat ditugun asmoak:  
onhartzen zailtxoak beharbada,  
guztiontzat baitira berriak.

Baina zein ederra den pentsatzea,  
gaurko urrats zailok  
aurrera gaituztela bideratzen,  
biharko digutela  
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua.  
Gaurkoa eta Biharkoa

BANCO DE BILBAO



## HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale hontan izartto batekin agertzen diren berbak

ADIN, edade.  
 ADMINISTRALGO (administrari + go).  
 administración.  
 ADOS, de acuerdo, d'accord.  
 AGIAN, beharbada, nonbait.  
 AGI DENEZ, según parece, al parecer.  
 AHUL, makal.  
 AHULTASUN, makaltasun.  
 AIPATU, aipaturako, aipaturikako, aipaturiko.  
 AITZITIK, al contrario.  
 AIZU (adi + ezazu), oiga, écoutez.  
 ALDARRIKATZE, proclamar.  
 ALDE, diferencia.  
 ANITZ, asko.  
 ANIZTASUN, askotasun. pluralismo, variedad.  
 ANTZ, irudi.  
 ARABERA, arauera, según, conforme.  
 ARAUDI, reglamento.  
 AREAAGO, oraindik gehiago.  
 ARESTI, momento recién pasado.  
 ARGITAN, en luz. (ARGIAN, en la luz.)  
 ARIKETA, ejercicio.  
 ARITZE, ari izate, ihardute.  
 ARRAKASTA, éxito, succès.  
 ARRASATE, Mondragón.  
 ARRETA, detención, atención.  
 ARTAZI, tijeras, ciseaux.  
 ARTISAUTZA, artesanía.  
 AT, kanpo, landa, fuera.  
 AURKEZPEN, presentación.  
 AUPATZE, promocionar.

BAILEGOEN, balego bezala.  
 BAILITZEN, balitz bezala.  
 BATEZBESTEKO, promedial.  
 BATZARTEGI, sala de sesiones.  
 BATZORDE, comisión, comité.  
 BATZU, unos. (Batzuk aktibo, batzu pasibo.)  
 BATZUREN, de unos. (BATZUEN, de los unos.)  
 BEDEREN, behinik behin, behintzat, gutienez.  
 BEHARGIN, langile.  
 BEHARKIZUN, necesidad.  
 BEHINIK BEHIN, behintzat, gutienez, bederen.  
 BEHINOLA, behiala, en otro tiempo, jadis.  
 BERENDIA, un cual.  
 BESTA, festa.  
 BESTE, inor.  
 BETA, asti.  
 BIDE, beharbada, nonbait.  
 BIDEZIDOR, atajo, sentier.  
 BIDEZKO, obvio.  
 BIGARREN BAZKO, Mendekoste.  
 BILAKA, bihur. (BILAKATU, bihurtu.)  
 BILKURA, bilera, reunión.  
 BULEGARI, oficinista.

DAKIKE, daki nonbait.  
 DAKIKEGU, dakigu nonbait.  
 DANIMARKA, Dinamarca. (DANIAR, danés.)  
 DATEKE, da nonbait.  
 DATZA, yace, está, consiste. (Etzan aditzaren forma.)  
 DEFENDATZERAKOAN, al ir a defender.  
 (DEFENDATZEAN, al defender.)  
 DERITZA, deritzo, deritzo, deitzen da.  
 DERIZKIE, deritze, deitzen dira.  
 DEUS, ezer.  
 DITUK, dira.  
 DOILOR, ruín, vilain.  
 DOKTOREGO, doctorado.  
 DOMUSAINDU, Todos los Santos.

EBAZPEN, solución.  
 EGITARAU, programa.  
 EGITASMO, proyecto.

EGITEKE, egin gabe.  
 EGITURATU, estructurado.  
 El, omen.  
 EKIALDE (eki, sol + alde), oriente, Este.  
 ELABERRI, novela, roman.  
 ERA, ocasión.  
 ERAKUNDE, organismo, institución, entidad.  
 EREMU, extensión de terreno, solar.  
 ERIZPEN, juicio, opinión.  
 ERIZPIDE, criterio.  
 EROSO, cómodo.  
 ERREPIKATZE, repetir.  
 ERRU, hoben, culpa.  
 ESKUALDE, comarca, distrito.  
 EURREZ, abundantemente. (ERRUZ, hobenez, por culpa.)  
 EZETSI, negado, desechado, nié, rejeté.  
 EZEZIK, no solamente.

FEEDBACK, comunicación en doble sentido, siendo cada uno de ellos emisor y receptor.  
 FROGA, prueba, demostración.  
 FUNTS, fondo, sustancia, esencia.

GAKO, kako, clave, busilis, punto esencial, clef.  
 GEHIENGO, mayoría.  
 GERTATU, resultado.  
 GERTU, prestatu.  
 GESALDU, derretido, fondu.  
 GISA (1), bezala.  
 GISA (2), conveniente. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 124. horrialdea.)  
 GISA (3), era, modu.  
 GOMIT EGIN, convidar, invitar.  
 GREBA, huelga.

HAINZAKOTZAT, en consideración.  
 HALABER, así mismo, igualmente.  
 HALA NOLA, por ejemplo.  
 HALEGIA (hala + egia), a saber, es decir, esto es. (ALEGIA, ficción, simulación.)  
 HAU, honeek. (Hauek aktibo, hau pasibo.)  
 HAURTZAIN, puericultor, puericultora.  
 HAUTESKUNDE, elección por votación.  
 HAZIL, noviembre.  
 HEDADURA, extensión.  
 HEDATU, zabaldu.  
 HIRIGINTZA, planificación urbana.  
 HITZARMEN, convenio.  
 HITZASPERTU, conversación ligera.  
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo.)  
 HORREN, hoin, tan.  
 HOTS, a saber, es decir, esto es.

IA, kasik.  
 IDAZKARI, sekretari.  
 IGAN, igon, igo.  
 IHARDETSI, erantzun.  
 IRAGAITE, iragate, pasatze.  
 IRITSI, heldu.  
 IRMO, irme, errime, fermu, sólido, firme.  
 ISTILU, conflicto.  
 ITSATSI, pegado, adherido.  
 ITXARON, iguriki, igurikatu.  
 ITZAL, enorme.

JADANIK, ya.  
 JAGOTE, zaintze.  
 JAKIN, determinado.  
 JALGI, atera, irten, urten.

JARAMON, kasu.  
 JAZO, gertatu.

KAIXO, agurtzeko berba.  
 KOPURU, suma, cantidad, número.  
 KUTSATZAILA, contaminador, contaminante.

LANTZEAN, noizean.  
 LARREGI, lar, gehiegi, sobera.  
 LEGEZ, bezala.  
 LEHENBIZIAN, al principio, al comienzo. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 LERRATZE, deslizar, glisser.  
 LLABUR, laburtxo.  
 LORRATZ, rastro, huella, trace.

MAIZ, sarri.  
 MENDEURREN, centenario.  
 MENTS, déficit.  
 MERINALDE, merindad.  
 MUKURUTU, colmado, comblé. (Ikus «Axularren Hiztegia».)

NABARI, evidente, manifiesto, notorio, patente.  
 NABARITZE, advertir, notar.  
 NAHIKERIA, capricho.  
 NAHIKUNDE, mero deseo. (Ikus «Axularren Hiztegia».)

OGIBIDE, profesión.  
 OHI, ex., antiguo.  
 OIHARTZUN, eco.  
 ORDURIK, ordutik. (Oso erabilia Bizkaian.)  
 ORO, guzti.  
 ORO HAR, en conjunto.  
 OSTERA, aldiz, berriz, ordea.

PALTRIKERA, sakel, bolsillo, poche.

SUEDIA, Suecia.

TAMAL, lástima.  
 TAXUTU, moldatu, atondu, antolatatu.  
 TOKIAN TOKIAN, en cada lugar.  
 TUTERA, Tudela.  
 TXATXUKERIA, zozokeria, inozokeria.  
 TXIKIRATZAILA, castrador, châteur.  
 TXOTXO, zozo, ridículo, estúpido.

UDAL, municipio.  
 UDALETXE, Herriko Etxe.  
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo.)  
 UKITU, tocado, touché. (HUNKITU, conmovido, emocionado.)  
 URLIA, un tal.

ZEIN, dela, sea.  
 ZEINTZU, cuáles. (ZEIN, cuál.)  
 ZELAKO, nolako.  
 ZEREN (ETA), ze, pues.  
 ZILEGI, lícito.  
 ZINEZ, zinetan, benetan.  
 ZIRATEKEEN, ziren nonbait.  
 ZURIKERIA, justificación, excusa, disculpa.  
 ZURRUMILO, torbellino.

# Azokaren antolatzaileekin

Durangoko Azokaren antolatzaileak nahiko ezagunak dira jadanik.\* Nork ez daki Gerediaga dela antolatzaile? Urtero urtero, aspaldiko hamar urte hauetan, hortaz jabetzeko betarik\* izan dugu euskaltzaleok.

Berriro hurbildu gatzazkie. Oraingoan, barrutik bertatik Azokaren berri jakiteko asmotan. Lehendakariarekin eta idazkariarekin\* egon gara, hortarako. Azken lau urteotan Jose Inazio Alberdi da lehendakaria, 34 urte-tako gaztea. Gazteagoa da oraindik Jose Inazio Bilbao idazkaria. Jende gaztea, jatorra eta dinamikoa da, ikusi dugunez, Gerediaga elkartearen ardura daramana.

## Ekintzak, helburuak

—**Ekintza modu asko duzuela ba dakigu. Sozialak, ekonomikoak eta kulturalak dira zuen ekintza nagusiak, ezta? Horien artean, zein da Azokaren lekua?**

—Lan inportantea da guretzat Azokarena. Gerediaga bera arduratzen da hortaz, elkarte bera, eta ez batzorde-ñoren\* bat. Urtero antolatzen ditugun ekintzen artean garrantzitsuena da Euskal Liburu eta Diskoen Azoka.

ANAITASUNAREN irakurleak ba dakikeenez,\* hortik aparte beste zenbait ekintza ere eratu ditugu: Batasunarekiko Idazleen Ermuko Batzarrea, Antzerki Taldeen Batzarrea, Euskal Artisten Batzarrea Garaiko Zubiaurreta-rreren etxean, Hirigintzaz\* bi aldiz, eta abar.

—**Azokarekin zer nahi zenukete lortu?**

—Normalean, gure ekintzak oro\* gure geure eskualdea\* —Gerediaga merinaldea\*— aupatzeko\* izaten dira.

Euskal Herri osoari begira urtero egiten dugun ekintza bakarra, Azoka hauxe dela esan dezakegu. Honekin zer nahi dugun? Euskal Herriari zerbitzu bat eskaini, liburua eta diskoa promozionatu eta hedatu.\* Ez goaz gu diru bila.

## Lanak ditu Azokak

—**Dirua aipatu duzu. Ba ahal duzue diru problemarik?**

—Bai horixe! Buruhausterik nagusia hortixek datorrigu, diru faltatik. Eta gauzak hobeto eramaten ez baditugu, horrexegatik da hain zuzen. Profesionalismo minimo bat nahi genuke, hilabete batzutarako liberatu ordaindu bat. Orduan bai, hamar urtetako esperientziarekin, Azoka askoz ere osoagoa izango litzateke.

Antolatzaileok hestu gabilta diru aldetik. Urtero deficit edo ments\* jakin\* bat uzten du Azokak. Baina, hala ere, jarraitzeko prest gaude.

—**Beste eragozpenik ba ahal duzue?**

—Laguntzarik eza da beharbada eragozpenik handiena. Instituzioen portaeraz ari naiz hemen. Lege aldetik, eragozpentxo batzu izan ditugu, programak moztuz eta hola. Istilurik\* handiena ihazkoa izan zen. Gobernaria kontra zegoen, eta Informazioko Delegatua alde. Honen-

gandik subentzio bat ere izan genuen. López jauna zen orduan Delegatua, eta Orejaren ekipokoa nonbait.

—**Laguntzarik izan duzue?**

—Azoka prestatzeko orduan, eta urtean zehar, baka-rrik aurkitzen gara. Gero, Azoka ospatzeko orduan bai hor merinaldeko gazteen laguntasuna izaten dugu, eta eskertzekoa da. Merinaldeko herri bakoitzak ekintza ja-kin baten ardura izan ohi du.

## Euskal Herriarena da Azoka

—**Izaten ahal duzue Azokaren oihartzunik? Zer esaten dizue jendeak, Azoka dela eta?**

—Jende asko urreratzen zaigu, bostekoa emateko. Eurrez\* hartzen ditugu zorionak. Eskerrak emateko ere, asko hurbiltzen zaigu.

Azoka interes handienarekin hartzen dutenak, **editorialak** dira, agi\* denez, Premiakotzat jotzen dute hauek Azoka. Urtean zehar ere, argitaldarien deitu egiten gaituzte. Arduratu egin ohi dira. Eskaparate bat da haien-tzat, salmenta leku bat.

Euskal **kulturgizonentzat** ere Azoka beharrezkoa da, dioskutenez. Beti etortzen dira, huts egin gabe. Hontaz eta hartaz sugerentziak ere egiten dizkigute. Jendearen ustetan nahiz eta Gerediagak antolatu, Azoka ez baita Gerediagarena, Euskal Herri osoarena baizik.

Gero, jende eta **publico arruntak** ere arretaz\* hartzen du Azoka. Urteto urtero hara urreratzen dira, liburuak ikustera eta eroatera, giroa ezagutzera... Urtero jartzen dugun informazio standera ere, hainbeste agertzen dira, hau eta hori galdetuz.

**Prentsak** ere bere interesa erakusten duela ez da ahanztu behar. Euskal eta erdal prentsak beti ematen du Azokaren berri.

## Etorkizuna

—**Etorkizunari buruzko asmoak zertan dira?**

—Azokarekin jarraitzekotan gara, noski. Ahal bagenu (eta hori ez dago gure eskuetan bakarrik), Azokaren in-guruan kultur ekintza sendo eta inportante batzu eratuko genituzke.

Sariekin ere segitu nahi dugu. Ihaz Kirikiño Saria ka-zetaritzari eskaini genion bezala, datozen urteetan beste holako sari batzu ere izango dira. Ba da zeri eman.

Bestalde, Tontorra Saria antolatzen dugu aurreran-tzean. Sari interesgarri bat delakoan gaude. Aurten Vi-llasanterentzat izango da.

Gure ustez, aurrerantzean, bi gauza azpimarkatu be-har lituzke Azokak. Alde batetik kazetaritza: jendeak errebista, liburua baino errazago irakurtzen du eta. Beste-tik, haur liburugintza: aurten haurrentzako diren liburu guztiekin stand edo erakuspostu berezi bat jarri dugu.

Joan ALTZIBAR